

ZUMABURU/GOIKALE

PAUSOZ PAUSO, AUZOZ AUZO:

DATA: Martxoak 6

ORDUTEGIA: 19:00 -21:30

PERTSONA KOPURUA: 37 pertsona (23 emakumezko/14 gizonezko)

Alaitz Mendizabal, Herritarren Parte-hartzea batzordeko lehendakaria:

Lasarte-Oriako herritarren parte-hartzea sustatu nahian, herriko auzoetan bilera parte-hartzaileak egitea proposatzen da. Udalak auzoen eguneroko bizitzan oinarritutako komunikaziorako espazio bat bultzatu nahiko luke.

Gaur egun egiten diren eskaerak ia beti banakakoak izaten dira. Arrazoi hori dela eta, garrantzizkoa iruditzen zaigu auzoetan bilera horiek egitea eta premia horiek denak batera jartzea.

Auzo bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela kontuan izanda, Udalak bertatik bertara jakin nahi du auzoetako errealitateen berri. Horregatik,, bilerak auzo bakoitzean egingo dira.

Zuek zarete, herritarrok, zeuen auzoa nola dagoen hobekien dakizuenak, eta horregatik etorri gara zuzen eskutik zuzenean jakitera nola ikusten duzuen gaur egun bizi zareten ingurunea.

Bestalde, komunikaziorako bide bati ekiteko modua ere bada, udalaren eta herritarren arteko hurbiltzea oinarritzat hartuta.

Hurbiltze eta komunikazio horretan, bi aldeek hartu behar dute parte, informazioa konpartituz eta beti herriaren eta herritarren onerako izango diren adostasunetara iritsiz.

Pablo Barrio, alkatea:

Udal-gobernua Bilduk, Herritar Plataformak eta EAJk osatzen dute. Udaleko departamentuak, berriz, hauexek dira:

- Hirigintza, ingurumena, merkataritza eta sanitatea: Nerea Sanchez.
- Ogasuna eta kontuetako berezia: Estitxu Alkorta.
- Zerbitzu sozialak, immigrazioa, kooperazioa, enplegua eta emakumea: Gorka Lizarraga.
- Obrak eta zerbitzuak: Ana Prieto.
- Pertsonala eta barne-erregimena: Pablo Barrio.
- Kultura, hezkuntza eta euskara: Boris Nogales.
- Gazteria, festak eta kirolak: Taxio Arrizabalaga.
- Parte-hartzea: Alaitz Mendizabal.

Departamentuek hilero batzordeak egiten dituzte, eta bilera horietan hainbat gai jorratzen dira, udalerriko alderdi politiko guztiekin. Batzordeetako gaiak udalbatzarrera joaten dira. Udalbatzarren deialdiak hilero bigarren asteartean egiten dira. Arratsaldean izaten dira, nahi duen edozein herritarrek haietara joateko modua izan dezan. Udalbatzarrak bukatutakoan, alkateak hitz egiteko aukera ematen die bertan diren herritarrei, jorratu diren gaiari buruz aritzeko.

Hurrengo lerro hauetan aurkezten dena 2012. urtearen zirriborro ekonomiko bat da:

2012ko aurrekontuen aurreikuspena

Gastuak: 23.900.000 €

ZUMABURU/GOIKALE

Diru-sarrerak: 23.200.000 €

Garrantzizkoa da bi puntu horien gainean hitz egitea, zeren eta kexak, proposamenak... marko politiko eta egoera ekonomiko honen barruan gauzatuko baitira.

Larraitz Sarobe, herritarren parte-hartzeko teknikaria

Prozesua bi fasetan banatuko da:

Lehenbiziko bileran, auzoko **diagnostikoa eta proposamenak** jasoko dira.

Bigarren bilera proposamenen gainean izango litzateke. Hemen, bilerako parte-hartzaileek erabakiko lukete egindako proposamenetatik zein diren lehentasunezkoak.

Bigarren eta hirugarren bileraren artean, denbora-bitarte bat utziko litzateke. Udalak eta auzoetako bizilagunek **hainbat dinamika partizipatibo jarriko lituzkete martxan, proiektuak garatzeko.**

Hirugarren bileran, Udalak eta herriko bizilagunek **garatutako proiektuak aurkeztuko lirateke**. Zein proiektu gauzatuko diren erabakitzeke erabiliko litzatekeen sistema ere aurkeztuko litzateke.

Prozesu horrekin, herritarrek beren auzoetan aurrera eramango liratekeen proiektuak baloratzeko, lehenesteko eta erabakitzeke aukera izango dute.

Lehen bilera honetan, banaka, talde txikietan eta talde handian, diagnostikoa eta proposamenak egingo dira. Horientzat, orri bat banatu da, 5 arlorekin:

- KULTURA
- HIRIGINTZA
- EKONOMIA
- ONGIZATEA
- PARTE HARTZEA

Aipatzekoa da, halaber, banatutako orrien artean orri bat dagoela proposamenetarako eta beste bat ebaluazioa egiteko. Ondo legoke, diagnostikoa eta proposamenak zeuen postan jaso nahi baduzue, orri hau beharrezko datuekin betetzea. Eta bileraren bukaeran ebaluazioa betetzea ere bai.

Banaka, talde txikiak eta bateratze-lana:

Proiektuaren nondik norakoak azaldukoan, herritar bakoitzak minutu pare bat izango ditu, gabezien eta proposamenen orrian beharrezko ikusten duena idazteko.

Bakarrik dauden bitartean, kolorezko gozokiak banatuko zaizkie. Talde txikiak egiteko erabiliko da hori.

Talde txikietan (4-5), bakoitzak jarri duena konpartitzeko aukera izango dute. Horrela, lehenago bururatu ez zitzaizkien ideiak gehitu ahalko dituzte.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde pasatuko dira, laguntzarik behar badute ere.

Dena batera jartzerakoan, ondo neurtuko da denbora, arlo bakoitzeko gabezia eta proposamen guztiak aportatzeko beta eman dezan.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarriko da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

Itxiera:

ZUMABURU/GOIKALE

- Bigarren bileraren data gogoratzea eta proposamenei lehentasuna jartzeko izango dela esatea.
- Bilerara joan ezin izan den jendearentzat, kulturetxean postontzi bat jarriko da, proposamenak han uzteko.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

ZUMABURU/GOIKALE

EREMUA: HIRIGINTZA (azpiegiturak, mugikortasuna)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Okendon iturria jarri	
<ul style="list-style-type: none">• Ibai ondoko parkera joateko bidean egurrak daude, Lanbide eskolaren inguruak txukundu hortik pasa ahal izateko.	
<ul style="list-style-type: none">• Udaletxe aurrean zebrabide gehiegi daude.	
<ul style="list-style-type: none">• Udaletxeko espaloia oso estua da.	
<ul style="list-style-type: none">• Kiroldegi atzean argi gutxi.	
<ul style="list-style-type: none">• Zumaburu kalean argi gehiegi batzuentzat eta gutxiegi beste batzuentzat.	
<ul style="list-style-type: none">• Aparkalekuak jarri (ordu zehatz batzuetarako, denbora mugatu).	
<ul style="list-style-type: none">• Garajeen atzeko espaloia kotxez beteta egoten da beti.	
<ul style="list-style-type: none">• Zuhaitz artean aparkalekuak berreskuratu.	
<ul style="list-style-type: none">• Kotxeak espaloi gainean aparkatuta egoten dira eta kotxe abandonatuak (Goikale).	
<ul style="list-style-type: none">• Ibai ondotik bidegorria jartzea	
<ul style="list-style-type: none">• Loidibarren frontoi aurreko aparkalekua txukundu.	
<ul style="list-style-type: none">• Isla plazako lorategietatik ura infiltratzen da garaje eta trastelekuetara. Alde batera eta bestera .	
<ul style="list-style-type: none">• Zumaburuko ikastolaren pareko aldapan baranda eta arketa bat jartzea ondo egongo litzateke.	
<ul style="list-style-type: none">• Garajeetan dagoen lorategia kendu eta espaloia bihurtu, Zumaburutik daatorren espaloiarekin batu.	
<ul style="list-style-type: none">• Oinezkoentzat bidea Zumaburu, hipodromoa, Bugati buelta egin ahal izateko.	
<ul style="list-style-type: none">• Zebrabidea jartzean arketa bat tapatu zuten eta euria egiten duenean espaloiak erreka bihurtzen dira. (Goikale 19,21)	

ZUMABURU/GOIKALE

EREMUA: ONGIZATEA (gizarte-ongizatea, hiri zerbitzuak, ingurumena)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Lorategiak txukundu, lurra aldatu, ez da egokia (Goikale 21)	
<ul style="list-style-type: none">Zaborra edukiontzia kanpoa uzten dute	
<ul style="list-style-type: none">arratoiak: erribera kalean eta Zumaburu 10.	
<ul style="list-style-type: none">Auzoa orokorrean zikina dago	
<ul style="list-style-type: none">Konpostagerako gune bat jartzeko (baratzen inguruan...).	
<ul style="list-style-type: none">Txakur kakak.	
<ul style="list-style-type: none">Beharra duten pertsonen laguntza puntualak	
<ul style="list-style-type: none">Boluntarioak pertsona helduekin	
<ul style="list-style-type: none">Transformadoreari ura erortzen zaio eta putzuak sortzen ditu. (Erribera 9 eta Zumaburu 10)	
<ul style="list-style-type: none">Bizilagunen zaratak.	
<ul style="list-style-type: none">Udaltzainen aldetik kontrol gehiago: gaizki aparkatutako kotxeak, gauetako zaratak...	
<ul style="list-style-type: none">Udaltzaingoaren funtzioak zeintzuk diren.	
<ul style="list-style-type: none">Gune berdeen gabezia.	
<ul style="list-style-type: none">Jubilatuetan emergentziatarako irteera jarri.	
<ul style="list-style-type: none">Baxuetan, hola kalearen aldetik, portaletako atea puskatuta.	
<ul style="list-style-type: none">Baxuetako atariak: pintadaz beteak daude (8 znk.)	
<ul style="list-style-type: none">Taberna barruetako soinua gehiegizkoa.	

ZUMABURU/GOIKALE

EREMUA: EKONOMIA(garapen ekonomikoa eta komertzioa)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Komertzio txikia sustatu.	
<ul style="list-style-type: none">• Industrialdea berritu eta lanpostuak indartu	
<ul style="list-style-type: none">• Langabetuen plataforma	
<ul style="list-style-type: none">• Gastu publikoaren kontrola	
<ul style="list-style-type: none">• Alokairua indartu.	

EREMUA: KULTURA (EUSKARA, HEZKUNTZA, KIROLA)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Kiroldgia errentaren arabera ordaintzea.	
<ul style="list-style-type: none">• Haurrentzat euskararen indartzeko ekintza ezberdinak: zinema, mendira, jolasak...(urasoekin egiteko espazioak sortu).	
<ul style="list-style-type: none">• Udaletxe berriaren atzeko parkea ekintza asko egin daitezke.	
<ul style="list-style-type: none">• Zinema igandetan oso zikina egoten da haurren sesioa izaten baita.	Goxokien kontua pixka bat kontrolatzea.
<ul style="list-style-type: none">• Kultur ekintza gutxi daudela iruditzen zaie batzuei, Kultur Etxea gehiago aprobetxatu, ordutegiak kontutan hartu.• Beste batzuen ustez gauzak egiten dira baina jendea ez da joaten.	
<ul style="list-style-type: none">• Liburutegia txikia geratu da eta masifikatua dago(soinuak asko nabaritzen dira: dantza, musika eskola...).	<ul style="list-style-type: none">• Liburua eguerdian eta gauetan irekitzea.

ZUMABURU/GOIKALE

<ul style="list-style-type: none">• Kirol instalazio egokiak	
<ul style="list-style-type: none">• Kiroldergia urte osoa ordaintzen da eta opor egun gehiegi ditu.	

EREMUA: PARTAIDETZA(AUZOGINTZA ETA KOMUNIKAZIOA)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Herri aldizkaria astean bitan izan beharrean 15 aldiro izatea.	
<ul style="list-style-type: none">• Beste batzuen ustez astean bitan argitaratzea egokia da.	
<ul style="list-style-type: none">• Txintzarri bezalako aldizkaria baina elebiduna.	
<ul style="list-style-type: none">• Atez atekoa herrian jarri aurretik herritarrei galdetzea eta erabakitzea.	